

TRAFIKO ORDENANTZA BERRIA / IKASTARO BERRIAK KZ-GUNEAN -
GABONETAKO EKITALDIAK ARGAZKITAN / SEXU IKASTAROA GAZTETXEAN



piipilean

Sorailuzeko Hamabostekaria 51. ordea 2003ko urtarrilaren 17a

Amaitu dira
burukominak



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxe: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarliaren txokuan: Industrias GOL S.A.

*"Gure produkziñuaren %80xa
automozinuaren merkatura
zuzenduta dago"*

Noiz sortu zan empresa?

1971. urteko apirilian.

Zeintzuk izan ziran sortzailiak?

Oregi familixakuak.

Zenbat langile dare momentu honetan?

96 langile.

**Zelako piezak egitten ditzuzue eta zer motatako
merkatuetara dare bideratuta?**



**Hotzian estanzatutako piezak egitten ditzugu eta
produkziñuaren %80xa, gutxi gorabehera automozinuaren
merkatura zuzenduta dago.**

Zein herrialdetara esportatzen dozue?

**Gure produkziñuaren %35a esportaziñora zuzenduta dago
eta herrialde gehixenak europarrak dira. Hala ta be,
badauzkagu bezero batzuk europatik kanpo, hala nola,
Estatu Batuetan, Hego Amerikan edo Asian.**

Zein izan da Soraluze geratzeko arrazoia?

**Erabaki hau hartzeko arrazoirik garrantzitsuena bai
bazkide baita langile gehixenak soraluzetarrak izatia izan
zan. Halaxe erabaki zan.**

Zergatik babesten ditzuzue herriko hainbat ekintza?

**Soraluzen dagan enpresa batek herrixan egitten diran
ekintza kulturaletan lagundu bihar dabela uste dogulako.**



Ajenda 21

IKER ALDAZABAL

Amaitzear dagoen urte honetan, geros eta gehiago entzuten den hitza; ingurugiroa dugu. Kasu honetan zoritxarrez, Galizian gertaturiko hondamendia dela medio, Denok bait dakigu marea beltz horrek sortzen eta sortuko dituen kalteak itsas-ingurunean oso nabarmenak izango direla. Baina egia esan, gertaera hau ttantta txiki bat besterik ez da globalki gertatzen denarekin alderatuz. Honen adibide ditugu: Bioaniztasunaren galtzea, ohian tropikalen suntsitzea, ozono geruzaren zulaketa eta abar luze bat. Guzti hauek, gaur egungo gizartea oinarritzen den ekoizpen-kontsumo sistemaren ondorioak ditugu. Konturatu behar garelarik horrela jarraituz gero, giza-arrazaren eta bioaniztasunaren galbidea suposatuko lukeela iharduera honek. Arazo honen aurrean, 1992-an Rio de Janeiron burututako bilkuran (178 estatuk parte hartu zuten bertan) honi aure egiteko oinarriak ezarri ziren. Bertan adostu zen dokumentua Agenda 21 dugularik. Dokumentu honek; globalki burutu behar diren politika ekonomiko, sozial eta ingurugiroarekin zerikusia dutenak, garapen jasangarriaren erizpidea barneratzea du helburu. Iharduera hauek aurrera eramatea ez denez erraza, epe ertain eta luzerako pentsaturiko politikak dira. Azken finean esaldi batean laburbil-

du dezakegu guzti hau: Globalki pentsatu behar da, lokalki jardunez. Eta lokalki, hau da, udalerrri mailan jarduteko badugu tresna bat: Ajenda 21 lokalak. Eta zertan datza? Ba, udalerrri mailan alor desberdinetan burutu behar den plan bat dugu, jasangarritasunaren erizpidea barneratzea duelarik bai politika ekonomiko, sozial eta ingurumenari dagokionean. Plan hau aurrera eramateko parte hartze hirukoitza galdatzen da. Hau da; politikari, teknikari eta entitate sozialena. Beraz, honen oinarrian gizartearen parte hartzea dago. Hiru fase nabarmendu daitezkeelarik: lehenik inkesta bat burutzen da udalerrri mailan, jakiteko zeintzuk diren premia larrienak. Bigarrenik, lortutako emaitzak kontutan hartuz udalerrriaren egoerari buruzko diagnostiko bat egiten da. Eta azkenik, diagnostiko horretan oinarrituz, plan bat gauzatzen da. Guzti hau partaidetza foro batzuen bitartez eramaten da aurrera eta hauetan edonork parte hartu dezake. Ondorioz, ingurugiroarengatik zerbait egitea nahi duenak, aukera aparta dauka foro hauetan parte hartuz. Beraz, animatu eta parte hartu, denok daukagu-eta zer esanik ingurugiroaren alorrean.

Telegrapak

Politta eh!. Stop. hemendik aurrera Pil-pileanen azala beti koloretan juango da. Stop. diruak amaitzen jakuzen arte behintzat bai. Stop. Azaloste barruan elkartian parte hartzeko deialdixa egin dotsuegu. Stop. enteratu gara kalia "Sekta Pandereta" esaten doskuela. Stop. baina ez dogu galdu oindio batenbat elkartera urreratuko dan esperantzarik!. Stop. zu be "Pandereta" edo "Pandero" sentitzen bazara, etorri Pil-pileanera. Stop. paradisuan zarela uste izango dozu. Stop. Eta Foru Aldundixak urte barrixarekin batera prestatu doskun marketing plana?. Stop. dagoeneko Plaentxia ez da "Eibar eta Bergara arteko herri zatarrak" bakarrik. Stop. telebistan, egunkarixetan eta irraxitan azaldu gara. Stop. egun batzuetan komunikabidietako errege izan gara. Stop. baina pasatu da dana. Stop. astopistamunstroak hor jarraitzen dau. Stop. gertatu danaren zergaittixez ezer gutxi dakigu. Stop. baina zer ardura dotsa horrek, bidia zabalik dao ezta!. Stop.. Eta E.H.E.ren kampaia oldartsua?. Stop. ez dakigu anbulategiko mediku erdaldun elebakarrak zela lan egitten daben presiño izugarri honen menpe. Stop. kezkatzekua da benetan. Stop. baina lasai. Stop. aiton-amona euskaldunak hiltzen doiaz poliki poliki. Stop. laster ez da arazorik izango. Stop. gero eta "vasco renegado" gutxiago dago. Stop. Soraluzen %70ak bakarrik daki euskeraz. Stop. pzzzz! . Stop. Gaztetxeko Hamabostaldi Kulturala, tira...Stop. "betiko" gauzak izan dira. Stop. Kaka Zaharra!. Stop. autofinantziaziñua eta kultur eskeintza latza izan!. Stop. animo eta eutsi horri!. Stop. uau!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonia 943 75 13 04
pilpilean@euskalnet.net

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arienne Unamuno.

Publizitatea: Enara Agirre (943 75 13 04)

Logotia: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta intzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Istripua gertatu eta hurrengo egunean adierazi zuten Aldundiko iturriek 4tik 8 egunera bitartean zabalduko zela errepidea. Aurrikuspen hori egin eta ondorengo egunetan eraguztietako adierazpen eta informazioak azaldu ziren komunikabideetan beti ere Soraluze aipagai zutela. Herritarrek ez zuten jakin epe garbirik Anton Jaimek Garrai eta Errepide diputatuak (EA) asteazken iluntzean prentsurrekoa eskeini eta irekiera eguna jakinarazi zuenerarte.

Zorion agurrak



Omar Rascon
2003 - 1 - 17 urtebete
Zorionak potxolo!!!!
Ez galdu sekula irribarre polit hori...
Ama eta senidiak.



Amaia Agirre
2002 - 1 - 22
Zorionak Txanpi!
Ia noiz...
Txipin partez



Enara Agirre
2002 - 1 - 10
Zorionak ilehori!!
hau ez da publizadiala!
Lagunen partez.



Jon Basauri
2002 - 1 - 5
Zorionak txef!!
Musutxubek!
Pil-pilekuon partez.



Nikanor Iñurrieta
2002 - 1 - 11
Zorionak aita!!
Ene 83 urte bete dituzu barren.
Konturatzeko pasa dira eeh?
Patxo haundi haundi bat zure biloba guztien partez.



Tatiana...
2002 - 1 - ??
Zorionak!!!
Orain bai orain 28 urte
Lagunen partez.




Eneritz Buruntza
2002 - 1 - ??
Zorionak potxolo!!
Orain bai orain 28 urte
Lagunen partez.



Esther
2002 - 1 - ??
Zorionak !!!
Orain bai orain 28 urte
Lagunen partez.



Nerea Atxotegi
2002 - 1 - 18 4 urte
Zorionak potxola!!!
Segi beti bezain alai eta jator.
Etxekuen partez.



Rosi Morales 01/22
Zorionak!
(Miresle ezkutu baten partez)

Cristina Morales 01/23
Zorionak!
(Etxekuen partez)

hildakoak jaiotakoak

Jose Bedaio Etxaniz Andrea Romero Aquino
Heliodoro Diez Marcos
Juan Urresti Telleria

ODOL-ATERAKETAK

**Urtarrilaren 24an arratsaldeko
19:00etatik 9:00etara Ikastola
Zaharreko eraikinean.**

Merkatu txikia



LEHIKETAK

* **Urruzuno lehiaketa:** 2003rako deia egin da. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan ikasten ari diren gazteei zuzenduta dago, poesia zein prosa sailean, Idazlanak 2003ko apirilaren 9rako, egun hau barne, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean aurkeztu behar dira. Sariak: hamar egun inguruko bidaiak eta 250 euroko sariak dira. Ikastetxeak ere sarituko dira. Sarituak abuztua baino lehen emango dira ezagutzera.

Informazioa gehiago
www.sustatu.com en

* **Bergara:** Sakeleko telefono bidezko maitasun mezuen lehiaketa. Mezuak euskarazkoak eta jatorrizkoak izan behar dute. 652729435 edo 605712469 telefono zenbakietara bidali behar dira. Mezuaren ondotik, partehartzailearen telefono zenbakia eta adina jarri behar dira.

* **Arantza:** Herriak eta hizkuntzak literatur lehiaketa. Lehiaketaren gaia "herriak eta hizkuntzak" da Genero guztiak onartuko dira: olerkia, bertso-paperak ipuina eta saiakera. Lanak euskarazkoak, jatorrizkoak eta argitaragabeak izan behar dira. Lanak emateko epea 2003ko martxoaren 29an amaituko da. Informazio gehiago 948-634125 telefonoan

LAN ESKAINTZAK

Langai (www.lanbide.net)

* **Administraria behar** Donostian praktiketako kontratua izango duen da. Erreferentzia: 94122/1

* **Soldadore-montadore bat** behar da Azkoitiarako. Erf.94364/1

* **Begiralea behar da** Oretako gazte lekuan aisialdirako . Erf.92474/3

* **Banatzailak behar dira** Gipuzkoarako 943-28-60-33

* **Sukaldaria behar da** Donostian . Erf.0141428

Orain artekoetan hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 tfo-nora deitu.)

* **Aisialdirako zuzendaria behar da** ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartearen Eskatzen da: Aisialdirako zuzendari titulua ,antolakuntzarako eta gestiorako gaitasuna, harremanetarako dohainak eta euskara maila ona (ahoz eta idatziz) izatea.

* **Eskaintzen da:** 6 ordurako lan kontratua urtebeterako. Luzatzeko aukerarekin.. Curriculumak entregatzeko: Tel.: 943-74 16 26 (Imanol)

* **Zerbitzari bat behar da** Bergaran urtariletik aurrera 943-76-07-92

* **Pertsona bat behar da** Oñatin kafetegia batean lan egiteko. 943783059

* **Tornerua behar da** Eibarren . deitu 943-29-25-42 telefonora

Gutunak

Udaleko dotapenak

Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia dela eta Soraluzen talde politikoaren artean hainbat eztabaida pil-pilean daude une honetan, hauetako bat Frontoian dagoen Haur Hezkuntzako eraikuntzaren gainean da. Plan Berezi honek orain dagoena bota eta kultur etxerako beste txikiagoa bat proposatzen du. Alde horretatik ezker abertzaleko zinegotziek Soraluzen gaur egun gela aldetik dauden beharrak azpimarratzea nahiko genituzke.

KULTUR ETXERAKO:

Erakusketa aretoa, hitzaldi aretoa, ikus entzunezko aretoa, liburutegia, informatika gela, AEK ko euskaltegia, Pil-pilean aldizkaria, Euskalgintza, Urrats Dantza Taldea, Musika eskola, Bertso eskola, Marrazki eta margoketaren eskola, Abesbatza, Kontrargi, Soraluzeko Kirol Bazkuna,...

UDALERRIARI DAGOZKION BESTE-LAKO DOTAPENAK:

- DBH n hutsune handiak dituzte, gimnasioa, aldagelak, ikasgela gehiagoren beharra. Kontuan izan behar da gaur egungo eraikuntzak ez duela legeak esaten duena ere betetzen.

- Estazioko ikastetxean ere obrak egin arren, bertara 100 ikasle gehiago joango direlako jadanik hutsune dezente aurre ikusten dira. Beste gela batzuen artean Haur Hezkuntzakoak alde batetik psikomotrizitate gelarik gabe geldituko dira eta bestetik Lehen Hezkuntzakoak gimnasiorik gabe. Patioa ere oso baldintza txarretan dago.

- Epe laburrean haurtzaindegi bat ere aurre

ikusi beharko litzateke, alde batetik Eusko Jaurlaritzan 0-3 urtekoen legea berehala atera behar duelako eta bestetik Soraluzek dituen biztanleen kopurua kontuan hartuta derrigorrezkoa delako gaur egungo gizartearen.

- Jubilatua: orain duten tokia sindikatuekin trukean lortu zen urte baterako. Beraz eta gainera duten sarbide desegokia kontuan izanik, beste toki aproposago bat behar dute derrigorrez.

- Sindikatua: Ezozi Bideko geletan urte baterako bakarrik sartu ziren, gainera tokia ez da batere aproposa.

- Udaletxea oso txikia gelditu da, eta denborarekin ziur aski hainbat zerbitzu bertatik irten beharko lirateke, bere garaian artxiboa irten zen moduan, interesgarria izango litzateke beste guzti hauek toki berdin batetan egotea; brigadila ere suposatzen da orain dagoen tokitik irten beharko dela;...

Era berean aipagarria da gure herriak solasaldirako dituen hutsuneak eta daudenak zein baldintzetan dauden.


Sakonki aztertu beharko dira dauden beharrak eta dotapenak, irtenbide bat denon artean aurkitu eta herrirako egokiena dena martxan ipini.

Pena izango litzateke une garrantzitsu hauek alderdikierengatik pasatzen uztea, eta gero bizi guztian damaturik egon behar izatea, kiroldegiarekin gertatu zen bezala. Guzti honegatik prest gaude gaia ondo aztertzeko, herriaren premiak ikusi eta denon artean proposamen sendo bat aurrera eramateko.

Soraluzeko Sozialista Abertzaleak

Zer irizten dotsazu?

Itxialdixak eragin dotsu zeozetan?



Maite kintanilla
13 Urte. Ikaslia.

Ezin izan naiz juan trikitixa ikastera kanpora eta partiduak jolastera juateko kriston bueltia emon bihar izan genduan. Kriston nahaste borrastia izan da.



Egoitz Portu
20 Urte. Ikaslia.

Neri ez dosta inungo kalterik egin, baina tristia da gaur egunian hola-ko gauzak gertatzia eta ez egotia soluzinorik epe motzian. Penagarrixa da jendiak holako buelta handixa in biarra lanera.



Eugenia Etxeberria
70 Urte. Jubilatua.

Geizki ibili gara. Kalte gehixen jasan dogunak plaentxiarrak izan gara.



Maribi Alonso
37 Urte. Etxekoandria.

Oso geizki iruditzen jata, ze Eibarrera juan bihar dot lanera eta ezin izan naiz juan. Hola ibili naiz egunero.



Gregorio eta Miren Uribe
43 eta 12 urte
tabernarixa eta ikaslea
Gaizki geratu gara, erdi inkomunikauta, Eibarrera juateko Elgetara juan biarra egon da eta lanera doiazzenendako kriston arazua izan da, gero gainera larrialdirenbat gertau ezkerro Arrasatera juan bihar ze Mendarora..



Manolo Etxabe
66 Urte. Jubilatua.
Azidenterik egon ez daixan ba itxi egin dabe, eta ondo egin daben ezin dot nik esan, hori dakixenak esango dabe. Holako lanak normalian luzerako izaten dia.

Ugaitz Catalan



SAN ANDRES
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

Kontulan
Aholkularitza S.L.

**Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak**

Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze
Tlfnoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA

Trafiko ordenantza berria indarrian



2002. Urte amaieran Udal Batzarrek aho batez onartu ostean, dagoeneko indarrean dago Udaleko Trafikoko Ordenantza berria. Ordenantza berriaren helburua, trafikoko "legedi zaharra gaurkotu eta egungo arautegietara egokitzea" izan da Udaltzainburuaren esanetan. Berrikuntzarik aipagarriena eta Udaltzainburuaren ustetan "herritarrei eguneroko bizimoduan gehien eragingo diena", isunen arloan ezarriko den arautegi berria izango da. Arautegi berriarekin lehenago ez bezela zehaztuta geldituko dira, Falta Arin, Larri edo Oso Larritzat izendatutzen diren trafikoko legehausteen gutxieneko eta gehienezko isunen zenbatekoak. Orainartean lege hausteen gehienezko isunen zenbatekoak ezarrita zeuden baina ez gutxienekoak, "horrek asko zailtzen zuen Udaltzainon jarduna". Aurrekoak

ez bezala oraingo araudiak gutxieneko eta gehineko zenbatekoak zehazten ditu; Falta Arinak 15 eta 20 euro bitarteko isuna jasoko dute, Falta Larriak 21 eta 100 euro bitartekoa eta Falta Oso Larriak 101 eurotatik 450 euro bitarteko isuna jaso dezakete. Udaltzainburuaren esanetan, "debekatuta dagoen kale batean kontrako norabidetik joatea edo semaforoak gorrian pasatzea moduko legehaustek larrizat jotzen dira, arinagoak dira aparkamentu oker xamarrak baina trafikoa oztopatu edo arriskua eragiten duten aparkamentuak larrizat hartuko dira eta istripuren bat eragitera heldu bada oso larrizat". Udaltzainburuak aitortu digunez, aparkamentu okerrak zigortzeko nahiko isun arinak onartu dituzte.

Urtean zehar aparkamentu okerrekin eta zirkulazio arazoekin hamaikatzeko lan ematen omen dute, "alde batetik Plarentzia oso herri estua eta aparkamentu gutxi daukana dalako baina bestetik jentia bi pauso egiteko be autua hartzea ohituta dagoelako, eta hori ez da posible". Dagoeneko zabalik dagoen Ezozki Bidetik Estazioarako sarbideak eta aurten egingo duten Olatik Estazioarako sarbide berriak asko arinduko omen du herriko trafikoa arazoa, semaforoak kendu eta herri barrutik kamioi handiak pasatzeko debekua ezartzeko moduko neurriak praktikan jarri ahal izango direlako.

Ikastaro aukera KZ-Gunean



Gabon garaian ikastetxeko gazte-koendako ikastaroan eskeini ostean KZ-Guneak indarrez heldu nahi izan dio urte berriari eta soraluzetarrendako interesgarria gerta daitezkeen ikastaro sorta bat prestatu du urte hasierarako. "NagusiWeb"; Adineko jendearendako egokitutako 10 orduko ikastaroa (9-11:00etara), "Internet KZ-Gunea"; interneten nabigatzen ikasteko 22 orduko ikastaroa (goizez eta iluntzean), "Mintegiak"; norberari interesatzen zaizkion alor zehatzak lantzeko ordubeteko aholkularitzak (ordutegi irekia), eta European Software Institutuen ziurtagiria lortzeko aukera ere badago. Gogorazi behar dugu ikastaro hauek dohainik direla eta datu pertsonalak ematea bakarrik eskatzen dela.

"Osasungintzan euskaraz" kanpaina



Soraluzeko EHEK, Osasungintzan Euskaraz bizi duen "egoera tamalgarrira" salatzen duen kanpainarekin jarraitzen du. Hil honetan, euskaldunek euskarazko osasun zerbitzua jasotzeko duten eskubidea aldarrikatzeko eta herriko anbulategi azpian "Osasungintzan euskaraz!" moduko leloak itsatsi dituzte. Hontaz gainera, Jaurlearitzak Osasungintzarako antolatutako oposizioetan euskara eskakizunik ez dagoela salatzen duten eskuorriak ere banatu dituzte etxez-etxe.

Elurra agertu da mendietan

Neguak agintzen duen moduan, mendiak elurrez zurituta eta tenperaturak zeropetik direla hasi dugu 2003. Urtea. Espero zena baino elur gutxiago egin zuen arren, plaentxiar askok eta askok plastiko eta trineoak bizkarreratu eta gozatu ederrak hartu zituzten laupabost egunetan urtu gabe izan zen elurretan.

2002^a Urte euritsua izan da

Igeldoko Meteorologia Zentruak emandako Deba Bailerako eguraldi datuen arabera, 2002. urtea urte euritsua izan da, baina normala bailara honetarako. Euririk gehien abuztuan egin zuen 212 bat litroekin eta gutxienez irailean 28 bat litroekin. 2002an guztira 1.500 litro inguru egin ditu 2001ean baino 50 gehiago.



**Asko izan ziren elur bila Karakate alde-
ra jo zuten plaentxiarrak. Guenetxeko
baserriko txabola parean aurkitu genituen
Haritza baserrikoak elurrezko
panpina handi bat egiten. (Je, je, je)**

Udala: 2002ko Balorazioa eta 2003rako Erronkak

Udaleko talde politikoei 2002ko Udalaren jardueraren balantze bat eta 2003rako erronken aurrikuspen bat eskatu diegu. Ale honetan EAJ-EA eta PP ko zinegotzien eritziak jaso ditugu:



EAJ EA *“Positiboena hirigintzan, hezkuntzan eta kiroldegian egindako lana izan da”*

2002ko Udalaren jarduerarik positiboena

2002. urtea garrantzi handikoa izan da Soraluzearentzat, burutu ditugun ekintza guztiengatik. Lau atal nagusitan labur daitezke:

Hirigintza

- Hondamen egoeran zeuden industria eraikinak bota: Sacia, Amutxastegi eta Albesa.

- Ezoziko bidetik Estaziora bitarteko errepidea egin.

- Olako zubia eraikitzen hasi.

- Ezoziko parkea egin.

- Atxuriko parkea egiten hasi.

Kultura eta Arte Ondarea

-Ezoziko baseliza zaharberritze-ko laguntza eskaini.

Hezkuntza

-Plaentxi herri ikastetxeko berrikuntza lanei ekin, 200 milioi peze-

tako aurrekontuarekin.

Kiroldegia

-110 milioi pezetako dirulaguntza lortu Gipuzkoako Foru Aldundia-rengandik.

-Otsailean irekiko da Kiroldegia, makineria berriarekin eta igerilekua eta pilotalekua erabat eraberritu eta gero.

2002ko Udalaren jarduerarik negatiboena?

Ekintza positiboak hainbeste izan direnez arlo guztietan esan dezakegu ia ez dela jarduera negatiborik izan, beti ere positiboak ez duela mugarik ulertuz, ez duela amaierarik.

Udalak eta herriak 2003rako duen erronka nagusia ?

Soraluzerako aurrekontu onak egi-

tea da Udalak 2003. Urterako duen erronkarik nagusia, hasita dauzkagun obrak amaitu ahal izateko, besteak beste.

a) Estazioa eta Olako zubiaren arteko lotura-bidea egin, errepide naguziko semaforoak kentzea ekarriko duelarik honek.

b) Kiroldegiko areto nagusiko, liburutegiko eta ludotekako lanak amaitu.

c) Bidegorria Bergarara.

d) Etxaburueta kalea konpondu.

e) Loralde auzoa zaharberritu.

f) Ezoziko ama hiribidean espaloia egin.

Eta amaitzeko, guztia eta ongi planifikatuta utzi 2003ko ekainean hasiko den legegintzaldi berrirako.

Alberto Sudupe

Alkatea



Alderdi Popularra *“Negatiboena, Alkate Jaunak talde honekiko izan duen jokabide jasangaitza”*

2002ko Udalaren jarduerarik positiboena?

Nere eiritzian, Soraluzeardako gertakizun edo jarduerarik positiboena udalerraren "biziberritzea" izan da.

Gobernu taldearen (EAJ-PNV eta EA) zein oposizioaren (EH-PSE-PP) jardunari eskerrak, Soraluzek IZARTU programaren bitartez udalerriarrendako oso garrantzitsuak eta beharrezkoak diren azpiegitura lanak burutzea lortu dugu.

2002ko Udalaren jarduerarik negatiboena

Partidu Popularrarendako negatiboena, Alkate Jaunak talde honekiko izan duen jokabide jasangaitza,

errespetu gabekoa eta iraingarria, frakismoko diktadura gogorarazten duena.

Akate jaunak talde honen eritzia ez errespetatzeko jarrera hartu du, berau baztertuz eta irainduz, talde hau iraintzen eta baztertzen duenean Partidu Popularraren botoemaileak ere iraintzen eta baztertzen dituela konturatu gabe.

Era berean Alkate Jaunak erabat ahaztu ditu ETak mehatxatuta bizi garen zinegotziak, anbiguitatearekin jolastuz eta hiltzaile eta intoleranteekin tinkotasunik gabekoa izanda.

Udalak eta herriak 2003rako duen erronka nagusia

Partidu Popularrarendako erronka nagusia berriz ere Soraluzeko udal-kudeaketan parte hartu ahal izatea litzateke, botuemaileak hala erabaki dutela eta gainontzekoen baldintza berberetan egin ahal izatea, guztien errespetuarekin eta ezinezkoa izango den arren, erahila izateko beldurrik gabe. Nere helburu bakarra, Soraluzetarren ongizatea lortzen laguntzea da, eurak ala erabakitzen badute.

Javier Núñez Álvarez

P.P.ko bozeramailea

Amaitu dira burukominak

Anton Jaime diputatuak indemnizazioak banatzeko aukera ez du baztertu. Hurrengo egunetan konponketegatik aldi bateko itxialdiak egingo dira .

Astebeteko itxialdiaren ostean eta segurtasun neurri guztiak erabat bermatu ondoren, herenegun zabaldu zuten berriz Soralezetik Maltzagara doan Gi-627 errepidea. Deba eskualdeko beste herri batzuekin batera Soraluze izan da itxialdiaren ondorioz larrienak jasan behar izan dituen udalerria. Besteak beste, bide hori eguneroko erabiltzen duten; garrailorari, langile, ikasle eta bestelako herritar asko eta asko izan dira euren eguneroko bizimoduan eragozpenak jasan behar izan dituztenak.

Larreategiko zubibidea egiteko lanean izandako istripu baten ondorioz joan zen asteke asteazken arratsaldean itxi zuen Ertzantzak Eibar eta Soraluze lotzen dituen Gi-627 errepide zatia. Istripua, porlanezko pieza aurrefabrikatu bat jartzen ari zirela gertatu zen, lanean ziharduten zubi zatiko hiru piezen barne lotura egiten zuten kableak nasaitu zirenean. Mugimenduaren ondorioz, guztira 120 tonako pisua duten hiru piezak, 40 tonako pisua duen burdinezko egituratik zintzilik gelditu ziren eta laugarren bat garabitik. Pieza horiek jausteko arriskuak eta hauen erorketak kontrapisua



Larreategiko zubibideko piezak burdinezko karrotik zintzilik gelditu ziren.

kendu ezkerko zubi osoaren egiturari eragin ziezaiokeen erorketa arriskua zegoela eta Gipuzkoako Foru Aldundiak errepidea ixteko erabakia hartu zuen.

Egun eta ibilbide neketsuak

“Istripua, porlanezko pieza aurrefabrikatu bat jartzen ari zirela gertatu zen, lanean ziharduten zubi zatiko barne lotura egiten zuten kableak nasaitu zirenean”.

Istripua gertatu eta hurrengo egunean adierazi zuten Aldundiko iturriek 4tik 8 egunera bitartean zabalduko zela errepidea. Aurrikuspen hori egin eta ondorengo egunetan era guztietako adierazpen eta informazioak azaldu ziren komunikabideetan beti ere Soraluze aipagai zutela. Herritarrek ez zuten jakin epe garbirik Anton Jaimek Garrai eta Errepide diputatuak (EA) asteazken iluntzean prentsaurrekoa eskeini eta irekiera eguna jakinarazi zuenerarte.

Hasierako orduetako geldialdiaren ostean, azkenean 7 egun luze behar izan dituzte arduradunek zintzilik gelditutako piezak garabiari lotu eta errepidea za-

baltzeko lanak gauzatzeko eta erabateko segurtasuna bermatu denean errepidea zabaltzeko erabakia hartzeko. Itxialdiak iraun duen 7 egun horietan, bide alternatiboak erabili behar izan dira Gi-627ko



Juan Mari (Arraindegia)

Juan Mari Elgoibarren bizi da baina Soraluzen dauka arraindegia. Hori gutxi balitz, Bilbora joan behar du eguneroko arrain fresko bila. Ez dio arrain freskoa ekartzeari utzi baina kalte handia egin dio bidea ixteak.

“Gu eguneroko jauten gara Bilbora goizeko lauretan eta plaentxiarako bidia itxita dauanez, kanpazartik etorri bihar izan dogu. Egunian 60 bat kilometro gehixao. Ia Diputaziñuak edo zeinek subenzionau bihar dittuan egon diran gastuak”.



Fernando Oregi (Garraiolaria)

Fernando Pascual Churruga lantegiko garraiolaria da eta Eibarrera joan behar izaten du ia egunero, materiala eramatera. “Len ordu laurden tartatzen genduana Eibarrera juaten, oin ordu eta laurden tardau da. Kanpotik etorri diran kamioiak be, len bostetan heltzen baldin baziran itxita egon da bitartian hiruetan heldu dira gero denbora gehixao bihar dabelako bueltan. Ia zeinek ordaindu bihar dittuan kalte guzti honek”.



Ainhoa Arruabarrena, Elizburu eta Iraider Garzia (Eibarko Istitutuko Ikasleak)

Ainhoak, Itsasnek eta Iraiderrek Eibarko institutu batean ikasten dute. Astebetean, institurako eta etxerako bidea amaiezina izan da. “Guk eskola mordo bat galdu dogu. Laster azterketak dauzkagu eta oso gaizki. Ordu bete inguru tardau izan dogu. Hau gertau danetik, gure gurasuetako batek eruatzen gaitu. Garraio publikua desastre bat da, beti berandu dabil eta gainera gehixao pagau bihar dogu”.

trafiko ugaria bideratzeko, Deskargatik, Elgetatik eta Kanpazarko gainetatik bideratu da trafikorik gehiena, baina hala ere, eguneroko kontua izan dira ilara luze eta erretentzioak batez ere Elgetako gainean. Egunotan izan ziren elurte eta izozteek ere ez zuten asko lagundu baina garbiketa lanei esker ez zen aparteko eragozpenik izan alderdi horretatik.

Arazoak garraio publikoarekin

Egunotan garraio publikoa erabili duten herritarren joan etorriak ere ez dira oso atseginak izan. Teorian zerbitzu guztiak mantendu dira baina hainbat herritarrek adierazi digutenez, ibilbide berriaren gainkostua ordaindu behar izateaz gainera, PESAtik jasotako de-

Antonia Almansa (Maltzako Etxekoa)

Antonia Maltzagan bizi da. Lehen bost minutuan egiten zuen bidea egiteko ordu bete behar izan du.

“Guk ordu bete edo ordu t’erdi bihar izan dogu egunero hona etortzeko. Nik hona etorri bihar dot lanera eta alabiak Eskoriatzara juan bihar dau ikastera. Alabia be neuk erabili dot kotxian ze garraio publikuakin izugarritzko denbora pilia bihar zeban Eskoriatzara heltzeko. Galdetu gontzen ia gu pasau geinken baina ezetz esan zoskuen. Egixa da baita autorik ez zala pasatzen eta laisaittasun haundixa izan dogula”.

“ibilbide berriaren gainkostua ordaindu behar izateaz gainera, PESAtik jasotako desinformazioa eta atzerapenek astunegia egin dute garraio publikoaren erabilera”.



Mertxe Epelde (Ikastetxeko Zuzendaria)

Mertxe Soraluzetarra da jaiotzez baina Eibarren bizi da eta egunero etortzen da Soraluzera beste 2 irakaslerekin batera. “Oso geizki ibili ga. Goizetan arazo haundixak izan dittugu Eibartik Elgetara igotzeko. Trafiko asko dabil eta ilara haundixak sortu dira. Gitxienez ordu ta laurden bihar izan dogu Plaentxiara heltzeko. Bazkaltzen be kanpoko irakasliak hemen geldittu gara, ze bestela...”



sinformazioa eta atzerapenek astunegia egin dute garraio publikoaren erabilera. Udaletik adierazi digute, garraio publikoarekin izan diren arazoak euren esku-menetik kanpo daudela eta gertatu ahal izan diren arazoaren ardura, enpresa arduradunarena dela erabat. Udalak bere aldetik, Mendaroko Hospitalerako zerbitzua zihurtatu nahi izan zuen eta autobus zerbitzu berezia jarri zuen goizero. Honetaz gainera, informazio kartelak ere ezarri ziren kaleetan eta udaltzaingoa herritarren zalantzak argitzen ahalegin du da. Hala ere izan dira Udalaren jarduna nahikoa izan ez dela eta kexatu diren herritar eta alderdiak.

Galera ekonomiko handiak

Deserosotasun eta amorrazioez gainera handiak izan dira itxialdi honek eta



Andres Gomez (Autobusak)

Andresk jendea garraiatzen egiten du lan eta bidea ixteak erabat baldintzatu du bere lana. Berak eta bere semeak egin beharreko irteeretan kilometro mordo bat gehiago egin behar izan dituzte eta horiek garraiolariarendako diru eta lan ordu asko dira. “La Salle eta Elgoibarko institutuko ikasliak eta fabriketako jentia eruateko, len hamar minutuan egiten zana egiteko, ordu bete bihar izan dogu Elgetatik zihar. Kostuak hiruzitu egin jakuz, gasoila, lan orduak, mantenimientua... Galizian txapapotiarekin moduan Plaentxia “hondamen-gune” deklaratu biharko dabe”.

istripuak eragin dituen eta eragingo dituen galera ekonomikoak. Itxialdiaren eraginez, errepidean ibili asko egin behar duten langile eta enpresek ordu gehiago behar izan dituzte euren lana garaiz bete ahal izateko eta horrek produkzioan ere eragin duela ziurtatu digute herriko zenbait enpresak. Udalak bere aldetik, alkatearen izenean eskaera-gutun bat bidali dio Antton Jaime diputatuari, galera ekonomikoak izan dituzten Soraluzeko norbanako nahiz enpresei konpentsazio ekonomikoak emateko beharra egon daitekeela adieraziz.

Bestalde istripu honek autobideko lanetan eragingo dituen atzerapenak ekarriko ditu galera ekonomikorik handienak. Istripua gertatu aurretik Maltzaga-Gasteiz autobideko lehenengo zatia apirilean irekitzeko asmoa zuten, lau hilabeteko atzerapena izan eta gero, baina orain ezinezkotzat jotzen dute lanak epe horietan amaitzea eta 2-4 hilabetetako atzerapena izango dutela baieztatu zuen Anton Jaime diputatuak, era berean istripua eragin duten arrazoiak argitzeko azterketak iragarri zituen. Bestalde, oposizioak eskatu bezala, kaltetuei indennizazioak eman eta gainkostua enprea eraikitzaileak ordaindu dezan zerbitzu juridikoekin harremanetan izango dela iragarri zuen.

Bai Euskarari; konpromezu fasea

Martxan da dagoeneko prozesuko konpromezu fasea. Fase hontan eragile ezberdinek euskararen normalkuntzaren bidean ze konpromezu hartzeko prest dauden adierazi beharko dute. Horretarako, aldebiko bilerak egiten ari dira teknikari eta gizarte eragile bakoitzaren artean. Oraingoan, eragileen erantzuna oso ona izaten ari dela adierazi dute teknikariek.

Konpromezu fase hau urtarrilean bukatzeko asmoa dago, ondoren udaltxean egingo den konpromezuen sinatze-ekitaldia pasa ostean, konpromezu horiek betetzeko eragile bakoitzak ze ekintza aurrera eramango dituen diseinatzeari ekingo zaio.

Abendutik ere kalean da informazio berripapera, bertan prozesuaren

nondik-norakoak ezagutarazten zaizkie prozesuan parte hartzen diharduten eragileei. Ahalik eta herritar gehienek prozesuaren berri kaleratu da berripapera. Berripaper hau eragile bakoitzak bere bazkideen artean banatzeko erabakia hartu zuelarik, horrela bazkideak ere, euren elkarte prozesuaren barne dagoenaren jakitun izan daitezten.

Konpromezu fase hau berotu asmotan "ZURE KONPROMEZUA-tu compromiso" jartzen zuen kartel batzuk ere kaleratu ziren. Horrelakoetan ohi den legez jendeak martxan jarri zuen irudimena, eta asko izan dira kartelek Ibarretxeren planaren inguruko konturen bat zela pentsatu dutenak.

Datorren egunotan agertuko diren kartel berrietan argituko da lelo horren helburua zein den.

Cubako argazkien erakusketa



Hil honen 17tik 25era bitartean Cubari buruzko argazki erakusketa izango da ikuasgai kiroldegiko erakusketa aretoan. Udaleko Kultura Sailak antolatutako erakusketa hau, ostegunetan (16an) J.M. Zabalak eskeini zuen "Kuba" ikusentzunezkoarekin batera, herrialde honen inguruko erakusketa osatzera dator eta berez lehenago egitekoa bazen ere, atzerapen txiki hau dela eta, oraintxe jarriko da ikusgai. Argazkiak Jose Luis Irigoien argazkilaria Bilbotarrarenak dira.

Gabonetako Ekitaldi Kulturalak Argazkitan



Olentzero eta Mari Dominginek patxara haundiz entzun zituzten plazara urreratu ziern haurren eskariak.



Gabon bezperan talde askok irten zuten gabon eskean. Koplaria lanean eta besteak jolasean.



Gazte asko urreratu dira Gaztetxeko Jardunaldi Kulturaletara. Begira zenbat buru!



Urte berriarekin batera hiru erregeak etorri ziren Soralezera. Zaldi gainean etorri eta oinez joan.

Sexu ikastaroa Gaztetxean

“euskaldun bakoitzak 400 urtetako apaiz bat daukagu barruan”

Jardunaldi Kulturalen barruan, urtarrilaren 10 eta 12an, Lahiak Sexologo Taldeak eskainitako sexu ikastaroa egin dute Gaztetxean. 16 Bat gaztek hartu dute parte ikastaroan eta harremanak sortu edo garatzerako orduan bakoitzak aurkitzen dituen zailtasun eta erraztasunen inguruan berba egin dute. Eli eta Eiderrek tartetxo bat egin digute eta sexuaren inguruan berba (berba bakarrik) egin dugu.

Zertarako balio izaten dabe mota honetako ikastaruak? Zer egitten dozue zehazki?

Sexualitate gaiaren inguruan oraindik lan haundixa dago egitteko. Mota honetako ikastaruak norbera zela dagan eta nun kokatzen dan jakiteko balio izaten dabe. Hortarako, gai bat hartu eta berau lantzeko, gehixenbat, dinamika desberdinak (debateak, roll-playnigak,...) jartzen dittugu mahai gainian, ondoren, hausnarketa bat egin ahal izateko. Informazioa emotiaz gain, oso garrantzitsua iruditzen jakulako, gaiak taldian eta bakarka hausnartzia eta aztertzea.

Jentia askatasunez berba egitten dau sexuaz berba egiterakuan?

Orokorrian jentia uste baino arazo gehiago izaten ditu gai honen inguruan naturaltasunez eta lasai hitz egitteko, norberan barrua azalaraztia ez da eta erraza izaten. Hala ere, ikastaroetara gerturatzen den jendea soltatzeko da, azken finean datorrena nahi dabelako dator eta gainera giruak bultzatuta errazago soltatzeko aukera izaten dabe. Hala ta guztiz, batzuk erraztasun haundixagua izaten dabe beste batzuk baino. Ez dogu ahaztu bihar sexualitateak gure gizartian gai tabua izaten jarraitzen dabela eta hitz egitteko orduan, hau igarri egitten da. Pentsatuz gero, argi ikusiko dogu gai honetaz hitz egitteko txistia eta bromak erabiltzen dittugula, baina modu serio baten hitz egittia, norberaren sentimenduak, sentsaziak eta bizipenak azalduz, zaila da. Guzti honen ondorioz, batzuetan ez dakigu gertatzen ari zaizkigun gauzak edo sentitzen ari garen gauzak, “normalak” diran ala ez., ze lotsatu egiten gara besteekin konpartitzeko orduan.



Eli Moreno eta Eider Arzelus izan ziren sexu ikastaroa gidatu zuten sexologoak.

Gaztiak ze egoeratan somatzen ditzuzue informaziño aldetik?

Infromaziuari dagokionez uste dogu gaztiak informaziua badaukela baina zera da gertatzen dana: informazio horretan informazio ona eta txarra nahasten dala eta horrek arazua ekartzen dituela. Honez gain informaziua ez da nahiko ez baldin badittugu jarrerak eta jokabidiak lantzen eta aldatu (aldatu biharra sentitzen badogu).

Eta praktiken aldetik?

Praktikak! Kontutan izanda sexualitateak gurekin jario eta hiltzen dala bizitza osuan zihar praktikatzeko dogu nahiz eta askotan konziente ez izan, guran baitago eta gure parte baita. Hala ere guk antolatzen dittugun ikastaruak eta tailerrak oso praktikuak dirala aurreratzen dotsugu, partaidetza aktibua izatia eskatzen da.

Zein izaten dira gehixen galdetzen diran kontuak?

Gehixen galdetzen diran kontuak koito harremani buruzkoak izaten dira. Hau oso normala da, argi izan bihar baitugu gure gizartian sexualitateaz hitz egitten daniel oindio be koituaz hitz egitten dogula. Hala ta be argi izan bihar dogu gure buruarekiko ezagutza bultzatu bihar dogula zeren eta nahiz

eta ez konturatu dexente gutxi ezagutzen gara.

Gero eta askatasun haundixagua somatzen da gizartean sexu kontuetan? Ze kate astun daukagu oindio hausteko sexu kontuetan?

Gai batzutan aurrerapausuak emon dittugula esan leike hala ta be asko dago egitteko oindio. Orain arte presio haundixa izan dogu, baina oindio presionatuta gaude nahiz eta presio hori gaur egun zeharkakoagua edo sutilagua dan. Erljiuaren eragina haundixa izan da eta hori gaur egun guran dago. Artikulu batetik esaten zeban moduan: euskaldun bakoitzak 400 urtetako apaiz bat daukagu barruan.

Hala ta be emon dira aurrera pausuak, gauza batzuetan errazago hitz egitten da gaur egun, adibidez, emakumiaren plazerraz, sexu orientaziua... hala ta be honek ez esan nahi gaintitua daganik, bakarrik esaten dogu errazago hitz egitten dala.

Gomendatu libururen bat.

Liburua gomendatzea zaila egitten jaku, oin ohe onduan liburu hau daukat: *Cuerpo, Sexualidad y deseo*. Una aproximación filosófica. Luis E. Martín-Peñasco de Merlo. Hala ta be badare liburu arinaguak eta dibertigarriaguak, *Sexulapikoa*, *Erosen txokoa*...

Atletismoa

Juantxo bostgarren Gipuzkoako Txapelketan



Joan den hilaren 12-an Elgoibarren maila internazionalen entzutetsua den Juan Mugerza krosa ospatu zen eta

bertan Juantxo Alberdik 26. postua lortu zuen 34 minutu eta 40 segunduko denborarekin eta kros honekin batera aurten Elgoibarko atletismo taldeak antolatu duen Gipuzkoako txapelketan 5. Postua.

Elgoibarko krosa munduko krosik garrantzitsuenetakoa da eta herrialde askotako korrikalariak hartzen dute parte; Keniarrak, Etiopiarak... denak maila handiko korrikalariak izaten dira eta kros jarraitzaileentzako oso ezagunak. Juantxo korrikalari hauen artean gustora ibili zen eta nahiz eta azkenaldian ez duen asko entrenatu meritu oso handiko postua lortu zuen.

Juantxoren hurrengo lasterketak otsailaren 2-an eta 9-an ospatuko diren Euskadiko Kros labur eta luzeko Txapelketak izango dira.

Animo eta eutsi goiari!!!

Mendi irteera

19an Erniozabalera Mendi Taldearekin

Aurten ere igande goizetan mendi ibilaldiak egiteko aukera aparta eskeintzen du Mendi Taldeak bi igandetik behin. Domeka honetan Bidania inguruko Erniozabal (1.010) mendira egingo dute irteera.

Goizerako izango da irteera eta joan nahi duenak goizeko 8:30etan azaldu beharko du Gila zubira.

Futbola

Regionalaren urte hasera kaxkarra



Herriko talde nagusiak urte hasera benetan okerra izan du, bi partidu jokatu ditu eta biak galdu egin ditu; lehen Ordiziaren aurka 2-1 eta azkena Mondra-ren aurka 1-4. Taldeak gabonetatik hona izan dituen lesio eta sartzioen eraginez arazoak izan ditu deialdiak betetzeko eta partiduetara jende justuarekin aurkeztu da. Honek taldearen jokoan eragina izan du eta ezin izan dute denboraldi haserako maila ona erakutsi, ala ere porrot hauek sailkapenean ez dute eragin handirik izan.

Jubenil eta kadeteari dagokionez zorte hobegoaz hasi dute urtea eta biek lortu dituzte puntuak jokaturiko partiduetan; jubenilak garaipena lortu zuen etxean Beasainen aurka eta kadeteak berdinketa Deban Hamaikak Bat-en aurka.

JUBENILA:
SORA 4 – Beasain 2

KADETEA:
Hamaikak Bat 1 – SORA 1

Pelota

Laskurain binakako txapelketan

Aritz Laskurain Bigarren Mailako Binakako Txapelketa ari da jokatzeko Sebastien Gonzalez Lapurtarra bikote duela. Dagoeneko bi partidu jokatu dituzte eta biak irabazi ere bai:

Gonzalez Laskurain 22
Saralegi Begino 20
Gonzalez Laskurain 22
Chafee Bernal 14

Final laurdenak jokatzeko ari dira, ligilla erara. Bost bikotetako bi talde daude. Lehen biak sailkatzen direlarik finalerdia jokatzeko. Aritzek sailkatzeko aukera asko izango duela dirudi.

Asteburu honetan deskantsua dauka baina larunbatean lagunarteko partidu bat jokatu du Mungian.

Erlei Txurruka Lezamako Txapelketa ari da jokatzeko eta final zortzi-erenetako partidu irabazi egin zuen:

Txurruka Errarte 22
Beobide Garcia 16

Final Laurdenetako partidu ere

irabazi egin du:

Txurruka Errarte 22
Azagirre Arraztoa 6

Fianlerdietako partidu gaur jokatu du.

Iñaki Jauregik Elgoibarko Txapelketan finalerdietako partidu galdu egin zuen 22 14.

Aitor Atxotegi Gipuzkoako Txapelketan taldeko bostgarren gelditu dia. Jokatutako azken bi partiduk galdu egin ditu:

Bidaniaren aurka 22 16
eta
Oñatiren aurka 22 18

Onar Muguruza lesionatuta dago eskutik eta baja izango da beste pare bat astean gutxienez. Bere partez Erlei Txurrukak jokatu du Gipuzkoako Txapelketako final erdietan eta 3. postua lortu du. Euskal Liga dauka zain orain.

Olatz Sebal Larrañaga

"Pil-pileaneko irakurlieri Isabel Allenden "Paula" gomendauko notseke"

Udaletxeko aldapia bajatzen harrapatu dogu Olatz, 4º temperaturiari hotzak aidian. Gure galdereri umore onez erantzun eta etxera bidian jua da, hain gustokua daben beruan bila. Neska alai eta irrifartsu honek makina bat teoria etarako dos-kuz uste baino lehenago.

Zela daukazu izena, zenbat urte dittuzu ta zertan egitten dozu lan?
Olatz Sebal naiz, 19 urte dittut ta filoso-fiako karrera l ikasten nabi.

Zein da zure afiziñorik haundixena?
Irakurtzia eta musikia entzutia.

Ze liburu gomendatuko lotsazuke Pil-pileaneko irakurlieri?

Pil-pileaneko irakurlieri Isabel Allenden "Paula".

Zelakua da Olatz Sebal?

Arduraduna, jatorra ta jenixo txarre-kua.

Sukaldian berezittasunen bat...

Kozinatzia ez jata bape gustatzen, baina zehozer preparatzekotan ensalada mistia edo frutena.

Zelan ikusten dozu zure burua hemendik 25 urtera?

Espero dot lanakin, igual familixia eukiko dot, baina seguru lagun asko-kin.

Zein da gogokuen dozun musika tal-dia?

Beatlesak

Urtarrilian sartuta garela, hasi zara azterketak preparatzen?

Ez oindiokan ez eta ez daukat esperan-tza haundirik.

Ondo pentzatzen jatzu azterketak gabonen ostian jartzia?

Bai, oso ondo, ze holan oporretan ikas-teko aukeria daukazu.

Desio bat...

Azterketak aprobatzia. Aurtenguak ta karrera osokuak be bai.

Zergaittik aukeratu zenduan filosofia karrera?

Beti gustau izan jata irakurtzia ta insti-



Bertso Begiz

*Filosofia ikasle eta
sukaldeko iheslari,
entsaladekin ezin da bizi
eta eskerrak amari.*

*Nitzcheren jarraitzaile,
noski musikazale
filosofia hori da!*

*Azterketentzat txuletatxo bat
eta miraria di da!*

Etxebarri

(Doinua: Iparragirre abila dela)

Olatz Sebal Larrañaga

Prestigeakin sortu dan girua sortuta, zer ondorio etarako ziñuke?

Politikuen aldetik beste arazo batzuk etaratzen ahalegindu dirala hau tapatze-ko.

Mendixa zurittuta ikusitta, gustora?

Ez, edurra ez jata bape gustatzen.

Bukatzeo, anekdotaren bat kontatzeo?

Oso despistadia naiz eta atzo bufanda bat galdu neban. Iazko kurtsuan bi jer-tze eta hiru estutxe be galdu nittuan.

tutoko filosofia irakasliak bultzatu nin-duan.

Ta pozik hartutako erabakixakin?

Bai, oso karrera interesgarria da.

Gehixen miresten dozun filosofua.

Nitzche eta bere teorixia: "Jainkoa hil da".

Badakizu udaletxerako hauteskun-diak aurten dirala. Zer eskatuko zontsake alkatiari?

Polikiroldegixa zabaltzia eskatuko not-sake; gutxienez pisinia.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti



MAPFRE
MAPFRE SORALUZE



JUAN LUIS IBARZABAL ARRIETA

JULIA IBARZABAL ARRIETA

Gabolats, 5 b
Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Eskuko telfnoa: 649 49 79 59 Faxa: 943 75 16 10
20.590 SORALUZE

Argazki zaharra



40. Hamarkada hasierako argazki honetan herriko Luistarrak azaltzen dira. Garai hartan, mutilak Luistar eta neskak Mariaren Alaba izaten ziran, arik eta ezkontzen ziran arte. Luistarrak eurak izan ziran hain zuzen be, gaur egun Gaztetxia dan gaztiendako (orduko Luistarrendako) eraikina egin zebenak. Argazki honetan azaltzen dira: Don Antonio Oiarzabal, Don Juan eta Don Aniceto Zugasti eta Don Miguel Etxabeguren abadeak (erdi erdian). Egoitz Unamuno

Lehiaketa


Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

**DEITTU
943 75 13 04 ra**

Aurreko irabazlia: Teresa Eguren
Erantzuna: Izagirre-Etxetxo



**IÑAKI
IÑARRA**

HARATEGI ETA
URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



Mendata taberna

*Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)*

Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

Xuban, Jon, Aitor, Gurutze, Gorka, Eduardo, Egoitz, Ugaitz, Enara, Ander, Eneko... eta zu?

Pil-pilean Euskara Ekartian partehartzia nahi dozu?

Hamabostekarixan !

Plaentxiarrei euren herriko barri emoteko. Herriko txutxumutxu eta gertakizun ilun danen barri jakiteko zure laguntza bihar dogu. Bi astetik behin egitten dogu bilera bat eta zure eritzia emote hutsarekin laguntza galanta eskeiniko diguzu!



Kulturgintzan !

Sormenari bide eginaz, errealitatea modu gozagarriago batean bizitzeko kultur eskaintza anitz eta partehartzaie osatu nahi dogu aurtengo urterako, zatoz eta egin zure ekarpenak. Soraluzekulturaz jantzi nahi dogu!.



Euskalgintzan !

Euskalgintzan ! Herria da gorputza ta hizkuntza bihotza. Plaentxian be euskeriak taupada ugari eta osasuntsuak emon deixazen lan egittia nahi badozu, etorri. Aurten Korrika dator eta izango dogu zer egina!

edo laugarren sail bat sortu!



EZ BILDURTU ETORRI, URTARRILAREN 23AN (OSTEGUNA), MAISUEN ETXEKO PIL-PILEANEN LOKALIAN EGINGO DOGUN ELKARTEKO KIDE BARRIXEN BILERARA.

(Arratsaldeko 20:00etan)

Euskarak bazter guztiak edertu ditzan!

2002 = 212 2003 = 300

Urtarrilaren azken astetik aurrera, Pif-pilean Euskara Eskarteko bazkide egiteko aukera izango duzu. Guztion artean elkarte sendo eta dinamiko bat egitea lortuko dugu.

Pif-pilean

ZURE ORDENAGAILUAK ZINTZILIK UZTEN BAZAITU...

DEITU KZlaguntzara

Tel.: 902 544 545
www.kzlaguntza.net

KZlaguntzak, informatika orientazioko doako zerbitzu berriak, ordenagailuen munduarekin zerikusirik duen edozein zalantza argitzen lagunduko dizu.

ARRETA ORDUTEGIA
KZlaguntza

Igandetik ostegunera:

10:00etatik 22:00etara

Ostiral eta larunbatetan:

10:00etatik 24:00etara

aurrera doan
herria



euskadi
informazio gizartearen en la sociedad de la información

